

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak erle-argizari jangarria eskaintzen du modu seguruan tratatua, elikagaietan kontserbagarri natural eta osasungarri gisa erabiltzeko, batez ere opilgintzan eta oxidazioaren, hezetasunaren eta narriaduraren aurkako babesa behar duten beste elikagai batzuetan. Gure produktua nagusiki ingurumenaren zaintzan laguntzen du argizari hondakinei erabilera osasuntsu bat emanez pertsonentzako eta beste enpresen produktuei onurak ekarriko ditugu honekin.

Gure enpresak kontserbatzaile artifizialen erabilera murrizten du elikagaietan, eta, beraz, irtenbide naturalagoa, jasangarriagoa eta osasungarriagoa eskaintzen du. Gainera, lehendik dagoen produktu bat erabiltzen dugu (erle-argizaria, adibidez), eta elikagai-erabilera berri bat ematen diogu, bere erabilera bikoiztuz. Horrez gain, tokiko ekonomia babesten dugu, argizaria inguruko erlezainei zuzenean erosten diegulako, eta, gainera, produktuen kontserbazioa hobetzen dugu, haien lana aldatu gabe.

Gure planetan gaur egun arazo handienetariko bat hondakinak dira, hauen pilaketa arazoak sortzen ditu ekosistemetan, hauek kutsatzen. Argizariaren erabilera ingurumen zaintzaren onurak ekartzen dugu, gure onura garrantzitsuena hondakinen murrizketa da, apikultoreak normalean argizaria botatzen dute eta ez diote beste erabilera bate ematen, horregatik materia hondakin bihurtu baino lehen erabiltzen bada produktu bat sortzeko gure planetaren kutsaduran eragin bat izango du.

Gure produktua naturala eta jangarria da, ez baitugu gehigarri kimikorik erabiltzen elikagaietan erabiltzeko. Gainera, arnasa txarra, sarroa eta hortzoiak murrizten laguntzen dugu, eta, beraz, esan genezake aho osasuna nahiko positiboa izango litzatekeela gure produktuarekin. Digestio hobeari lotutako digestio onurak ere izango lituzke, eta lagundu egingo luke ahoko ultzerekin. Gure produktua antioxidatzailea da, eta, beraz, gorputzarentzat onuragarriak diren entzimak ekarriko lituzke. Hori alde batera utzita, esan genezake gure produktuak zapora neutroa duela, eta, beraz, ez lukeela elikagaiaren zaporea aldatuko kanpoko geruza gisa aplikatuta. Azkenik, esan dezakegu gure produktua nahiko jasangarria dela, produktu ekologikoa, biodegradagarria eta formatu batzuetan berrerabilgarria delako.

Hondakinen murrizketan ekosistemetan onurak ekartzen ditu produktua, mundu jasangarriago bat sortuz poliki poliki eta erleei bizibiltate handiago bat emanez.

Gure produktua produktu osasungarriagoak eta jasangarriagoak eskaini nahi dituzten opil industrialeko enpresentzat, beren osasunarekin eta ingurumenarekin kezkatuta dauden kontsumitzaile partikularrentzat eta produktu naturalen katalogoa handitu nahi duten denda ekologiko eta belartegientzat pentsatuta dago.

Produktua enpresentzako ere bai dago pentsatuta, honek haien produktuak osasuntsuagoa eta irudi hobe bat ematen dio bezeroei erakargarriagoa izateko.

Kontserbatzaile artifizialen benetako alternatiba gara. Gainera, dagoeneko ekoitzitako argizaria erabiltzen dugu, hondakinak saihestuz eta ekoizle txikiei lagunduz. Osasunerako onura funtzionalak dituen produktu bat ere eskaintzen dugu, ez kontserbatzeko bakarrik. Azkenik, handizka saltzen diegu enpresei edo formatu txikian partikularrei.